

Zerbitzu integralen premia, krisi egoeran bizi diren familiak artatzeko

ADMINISTRAZIOAREN ARDURA. Gai «delikatu» hauek profesionalen eta familien artean sortzen duten «noraeza» saihesteko, administrazioen eskumenak zehaztea galdegiten dute



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Justo Saenz, bizkarrez, *Krisi egoera bizi duten familiak artatzeko esperientziak* izeneko mahai inguruan azalpenak ematen.

HARREMAN GATAZKATSUAK

Seme-alabek gurasoekin egoteko eskubidea

Sarritan gertatu ohi den legez, bikote bat banantzen denean, horien seme-alabak izaten dira haustura gehien pairatzen dutenak. Hala, atzoko mahai inguruan bildu ziren hiru adituek gurasoak eta seme-alabak elkarrengana biltzeko guneak bilatzea proposatzen dute. «Etenda dauden harremanak mantendu, egonkortu eta berriz ere norabide onean jartzea ahalbideratzen du horrek», esan zuten.

Nuria Caldere Kataluniako adituaren arabera, haurrek helduek adina eskubide dituzte horrelako harremanei aurre egiteko, «eta ezin zaie inola ere ukatu banandutako aitarekin edo amarekin egoteko eskubidea». Eskubide hori bermatzen ez bazaio, haurrak «nortasuna eraikitzeko arazoak» izango dituela gogorarazten du, eta me-rezi dituen bitartekoak eskaini behar zaizkiola dio.

dugu», eta krisi egoera bizi duen familia bat artatzeko «zerbitzu integralak eskaintzea» proposatzen du. «Profesional asko gaude itsaso handi honetan galduta. Bakoitzak bere gaia oso ondo menperatzen du, baina gure artean ez dago jakituria trukaketarik», esan zuen.

Banandutako bikoteek euren seme-alabekin mantendu beharreko harremanaz ere mintzatu zen Caldere, eta kasuak «mila-k» daudela aipatu arren, «Katalunian harreman hori hobetzeko zerbitzu bat abian jartzeko asmotan» daudela adierazi zuen.

Frantziako esperientzia, Jean Grechezen ahotik

Azkenik, Frantziako gurasoen bilguneen federazioko presidente Jean Grechezek hartu zuen hitza, eta Frantziako administrazioaren egituraketa «zeharo ezberdina» dela esanez eman zion hasiera aurkezpenari. Grechezentzat, horrelako gaiak lantzeko garaian oso garbi izan behar da zein den lanari ekiteko «norabidea», eta kasuan kasuko zerbitzuak eskaintzea proposatu zuen.

Grechezen arabera, familia kontzeptua «nabarmen» aldatu da, eta horrek gurasoen eta seme-alaben arteko harremanean eragiten duela esan zuen. «Gurasoak eta seme-alabak elkartzeko guneak bilatzea ez dagokio familia bitartekaritzari», esan zuen.

ESANAK



JUSTO SAENZ

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Guraso Bananduen Federazioko kidea

«Administrazioen arteko koordinazioa behar da krisian dauden familiei laguntzeko»

«Orain arte, gai hauekiko eskumen guztiak Foru Aldundien esku egon dira, eta egun, Eusko Jaurlaritzaren, hiru diputazioen eta Eudelen artean egindako hitzarmenak eskumen horien banaketa ekarri du», zehaztu zuen Saenzek. Hala, arautegi hori garatzeko «hutsune legal» nabarmena sumatzen duela esan zuen, eta administrazio bakoitzari dagozkion eskumenak zehazteko premia aldarrikatu.



JEAN GRECHEZ

Frantziako gurasoen bilguneen federazioko presidentea

«Seme-alabak eta gurasoak elkartzeko guneak bilatzea ez da famili artekaritzaren lana»

«Administrazioen arteko koordinazioa behar da krisi egoeran dauden familiei laguntzeko, ezin baitugu onartu senitatekoak sail batetik bestera ibil daitezen», azpimarratu zuen.

Programa integralaren emaitzaren lehen fruituak

Ildo horretatik, familiei laguntzeko asmoz Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian abian jarritako diziplina askotako programa in-



NURIA CALDERE

Kataluniako familien bilguneen kide eta Ademako ordezkaria

«Krisi egoeran dagoen familia bat artatzeko ezinbestekoa da zerbitzu integralak eskaintzea»

tegrala ematen ari den «emaitza onak» izan zituen gogoan Saenzek, eta administrazioen arteko elkarlanak gauzak arintzen dituela esanez.

Kataluniako familien bilguneen kide eta Ademako ordezkari Nuria Caldere izan zen mahai inguruan parte hartu zuen bigarren aditua. Haren esanetan, Kataluniako administrazioan «hemen gertatzen den eskumen banaketaren arazo berbera

Iñaki Gurrutxaga | DONOSTIA

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) Udako ikas-taroen barnean eskaintzen ari den gairik emankorrenetako bat da munduko familia askok bizi ohi duten krisi egoera. Hala, gatazka horiek hizpide hartuta, *Krisi egoera bizi duten familiak artatzeko esperientziak* goiburua daraman mahai ingurua egin zuten atzo Donostiako Miramar jauregian.

Gai horren gainean lan egiten duten hiru adituk parte hartu zuten solasaldian, eta hirurek ondorio bera atera zuten: krisi egoera bizi duten familiak artatzeko zerbitzu integralak eskaini behar direla, eta zeregin horretan tokian tokiko administrazioek ezinbesteko zeregina betetzen dutela.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Guraso Bananduen Federazioko kide Justo Saenzek hiru lurralde historiko horietan eskaintzen diren zerbitzu eta baliabide sozialak izan zituen hizpide. Saenzek arabera, hiru herrialde horiek «aitzindariak» dira familien krisi egoerak artatzeko garaian, baina, hala ere, «gabeziak nabarmenak» direla nabarmendu zuen.